

Elizabeth Diller*

Bad Press

Produkzio industrialeko eraginkortasunaren kudeaketak etxeko lanetan izan dituen ondoriak aztertzen ditu egileak eta bere buruari galdetzen dio: zer gertatuko litzateke litzateke zeregina eraginkortasunaren estetikatik erabat askatuko balitz? Lisaketa disidente baterako proiektua aurkezten du erantzun modura.

Jatorrizko testua *Gender Space Architecture* liburuan argitaratu zen. Liburu hori Barbara Penner, Iain Borden eta Jane Rendellek editatua da eta Routledge etxeak argitaratu zuen, Londres eta New Yorken, 2000. urtean.

Testu hau, aurrez, Zehar 44 zenbakian argitaratu zen, 2000n.

* **Elizabeth Diller** arkitektoa da, Diller & Scofidio estudioko partaidea eta New Jerseyko Princeton Unibertsitateko irakaslea.
Proiektuaren laguntzaileak: **Brendan Cotter**, **Heather Champ** eta **John Bachus**, **Linda Chung**, **Paul Lewis**, **David Lindberg**.

Jabetza pribatua

Nudismoaren aurkako legeetan exhibizionismo publikoaren kategorian sartzen dena zehazteko, Floridako estatuak giza ipurmamien legezko definizio bat eman zuen:

Laburpena: Pertsona bat zutik dagoenean lurzorutik paraleloan dauden irudizko bi lerroen artean dagoen giza gorputzaren atzealdea, lehenengo edo goragoko lerro hori ipurmamien (hau da, aldakaren atzealdetik hankaren atzealdera doazen giharrek osatutako irtengunea) banalerroaren gorenko aldean kokaturik dagoelarik, eta bigarrena, edo azpiko aldea, banalero horren gune ikusgai behearenean edo haragizko irtengunearen makurduraren gunerik behearenean, bietan behearena den horretan, eta irudizko bi lerroen artean gorputzaren alde banatan, zeintzuk lurzorutik eta gorago deskribatutako lerro horizontaletatik zut baitoaz, lerro elkarzut horiek ipurmami bakoitza eta hanka bakoitzaren kanpoaldea elkartzen direneko gunetik abiatzen direlarik'.

Angeluzuzen horren muga barruan dagoen haragiaren agerpen oro arau-haustea litzateke. Lurraren legeetan ez bezala, non jabetza lerroek eremu pribatua publikoaren transgresioetatik gordetzen baitute, gizarte mailan gorputz «txukuna» definitzen duten jabetza lerroek eremu publikoa partikularren transgresioetatik gordetzen dute. «Jabetza» (*property*) eta «txukuntasunaren» (*propriety*) edo txukuna (*proper*)² denaren arteko jokia bereziki korapilatsua bihurtzen da gorputza legezko gunetzat hartzen denean.

Denbora luzez gorputza zalantzazko eskumeneko eremu izan da, Kafkak estatuaren aurkako krimena akusatuaren gorputzaren baitan izugarriki irartzen duenetik hasi eta William Buckleyren proposamenarekin amaituz, zeinetan HIESaren analisisan emaitza positiboa izan duen homosexual ororen ipurmamietan tatuajea egiteko legezko agindua gauza dadin eskatzen baitu. Gorputz sozial jakin batzuen gaineko seinale ikusezinak arruntagoak

dira —adibidez, boterearen diziplinazko teknologia eta teknikak sortutako gorputzak, Michel Foucaultek aztertuak—. Honakoan gorputza egitura instituzionaletik banaezina da, soldaduaren gorputza kasu, «maila ñimiñoetaraino instrumentalki kodetua. Bere keinu bakoitzaren giltzadura, martxan ibiltzeko jarreatik idazkerara, bere zati osagarrietaraino xehatzen zen. Zati horietako bakoitzari iraunaldi eta agerpen ordena jakin bat esleitzen zitzaizkion»³, eta gorputza estaltzen zuen uniformeari adinako ordezkapen balioa ematen zitzaion. Baina gorputzak, dakigun bezala, kontroleko mekanismo zoliagoek osatzen dituzte —hedabideek erakutsitako gorputz dotorea kasu—. Gorputz horri irakurketa berriak egiten zaizkio etengabe, osasuna, edertasuna, ekonomia eta geografia barne hartzen dituen diskurtso bilbe konplexua medio.

Etxe barruko gorputzak

XIX. mendearen amaieran, gorputza industria- produktibitateko osagai mekaniko gisa, lantegiko egituraren luzapen moduan, ulertzen hasi zen. Antolaera zientifikoak, Taylorismoak alegia, gorputz horren mugimenduak arrazionalizatu eta estandarizatu nahi zituen, bere energia dinamiko erabiliz eta berori eskulan eraginkor bihurtuz. Anson Rabinbachen esanetan, «energiaren lengoia dinamiko XX. mendearen hasierako ideologia sozial eta politiko utopiko askoren funtsezko kontzeptua zen: Taylorismoarena, boltxebismoarena eta faxismoarena. Mugimendu horiek guztiek gorputza indar produktibo eta tresna politiko gisa ikusi zuten aldi berean, zeinaren energia zientifikoki diseinatutako antolaketa sistemetara molda baitzitekeen»⁴.

Luze gabe, gorputzak lantegirako moldatzearen jarduera bulegora, eskolara eta ospitalera heldu zen. XX. mendearen aurreneko hamarkadarako antolaera zientifikoa etxera sartu eta etxeke lanei aplikatu zitzaion. Fabrikako langilearen ekintza oro xeheki aztertzeke denboraren eta mugimenduaren gaineko ikerketak, mugimendu-forma idealak eta, azken buruan, langile ideala diseinatzeke xedez eginak, etxera

aldatu ziren, etxeko lanak egitean garatutako mugimendu bakoitza xeheki ikuskatu eta, modu horretara, etxekoandre ideala moldatzeko (Europar XII. mendeaz geroztik erabili izan den *etxekoandre* terminoko «etxeko» eta «andre» hitzen irakurketa berri bat egin behar zen 1920ko hamarkadako klase ertaineko familia amerikar miraberik gabekoarekiko). Antolaera zientifikoak etxekoandrearen gorputza lan egiteko ahalmen mugagabea zuen indar dinamiko bezala interpretatzen zuen.

Bere aurkari bakarra nekea zen, eta nekeak, bere adiera zabalean, gizarte berrian nagusi zen morala —hondakin oro baliagarri izan litekeenaren ideia— ahultzen zuen.

Frank Gilbrethek makurdura murriztuta igeltserotzaren eraginkortasuna areagotu zuenean, eraginkortasun zientifikoaren lehenengo interpretatzaile Christine Frederickek honakoa galdetu zuen: «Ez al nintzen ni, ehunka emakumeren antzera, sukaldeko mahaiaren, harraskaren eta lisatze taularen aurrean beharrik gabe makurtu, igeltseroak adreiluaren aurrean makurtzen diren moduan?»

Laburpena: Ontziratzean emandako aurrerapenei esker eskura ditugun aurrez prestatutako jakiek etxekoandreei denbora asko aurrezten diete. Aurrez prestatu eta ontziratutako *goulash* otordu bat eta hutsetik hasitako beste bat atontzearen artean dagoen aldea ikusi besterik ez dago, denborari nahiz egin beharreko ahaleginari begira. Eskumuturrari lotutako argiek jakiak atontzeko modu luzean sukaldariak behar izan zituen 90 minutuetan zenbat mugimendu gehiago egin zituen erakusten dute, 12 minutu besterik iraun ez zuen aurrez prestatutako jakien sistemaren aldean⁵.

Laburpena: Besoekin lurraren gainetik 46, 56 eta 72 hazbeteko altueretara iristeak minutuko oxigenoaren kontsumoa %12, %24 eta %50ean areagotzea eskatzen du, hurrenez hurren, zutik egote hutsaren aldean. Beraz, kontsumitutako energia iritsitako garaieraren arabera da. Besoak luzatzeak gorputza makurtzeak baino

energia gutxiago eskatzen du. Gorputz-enborra tolestuz 22 eta 3 hazbeteko altuerara iristeak oxigenoaren kontsumoa minutuko %57 eta %131 zentimetro kubikoetan areagotzen du. Belauna tolestuz lurraren gainetik 3 hazbeteko altuerara iristeak oxigenoaren kontsumoa %224ean areagotzea eskatzen du. Horrek gorputz-enborra tolestean belauna tolestean baino energia gutxiago eskatzen duela adieraziko luke, baina belauna tolestean, aldiz, giharren esfortzu txikiagoa eskatzen du⁶.

Antolaera zientifikoak lana aurrezteko garatutako tekniken aplikazioak, etxeko tresnekin —«mirabe elektriko berriak»— batera, 20ko hamarkadako etxekoandrearen xahupen fisikoa murriztea zuen helburu. Eraginkortasunaren erretorikaren arabera, aurreztutako denborak eta energiak emakumea etxearekiko loturatik askatuko zuten, eta modu horretara ordaindutako lanaren merkatura sartzeko aukeran jarri. Eraginkortasun grina, ordea, ez zen bere promes askatzailea asetzeko gai izan. Askotan eraginkortasuna bera xede bakar bezala hartzen zen. Ironikoki, horrek etxekoandrea gero eta lan gehiago egitera eraman zuen, etxeko garbitasunarekiko baldintzak eta eskakizunak kasik itsumen bilakatzeraino igo baitziren. «Etxeko germenak» delakoaren aurkikuntzak eta germenaren teoriaren hedapenak lohiaren eta gaixotasunaren arteko lotura estutu zuen. Luze gabe lohia alderdi sexual, erlijioso eta estetikoak barne hartzen zituen irizpide moral bihurtu zen. Higienea fetixizatzean, garbitasunaren arazoa edertasuna, kastitatea, errukia eta modernitatearekin nahasi zen. Eraginkortasunak etxeko esparruari etxeko gorputzari adinako garrantzia ematen zionez, barrualdearen diseinua higiene paranoiko horri errenditu zitzaion. Hautsaren eta germenaren haztegi ziruditen XIX. mendeko barrualdeen konplexutasunak gainazal garbiari —zuria, leuna, laua, trinkoa eta jarraitua— bide egin zion, etxekoandrearen begirada zorrotz etengabearen pean.

Antolaera zientifikoak emakumea askatu ez zuen arren, emakumeek, etxe barruan egotera

behartuta, eguneroko lana gero eta gehiago arrazionalizatu zuten. Emakumeak egin beharreko zerbitzuko lan apaltzat jotzen zenaren laidoa ezabatzearen, 20ko eta 40ko hamarkaden artean etxeko lanak pixkanaka maskulinotzen eta etxearen kudeaketa ekonomiko orokorrago moduan ulertuak izaten hasi ziren⁷. «Etxeko ekonomilariak» nutrizio adituaren, medikuaren, kontulariaren, haurzainketako adituaren eta kontsumitzaile informatuaren trebetasunak uztartzen zituen orain, besteak beste.

Ikuspegi berri bat gailendu bazen ere, etxeko lanek berekin zekarten ahalegin fisikoak beti bezain akigarri eta ezatsegin izaten jarraitu zuen. Lehenago mirabearen gorputzak jasandako lohia etxekoandre nagusiaren kezka gaituztena zen orain⁸. Mendearen lehenengo erdiko miraberik gabeko etxean, hondatze arrastorik ageri ez zuen emakumezkoaren gorputz idealizatuari eustea etxeko esparru idealizatuari eustea adinako lantegi larria bilakatu zen. Biek ala biek adinaren higadura ekiditea eta hedabideek sortu eta sustatzen zituzten irizpide eta baloreei lotzen zitzaien ordena ideal bat eguneroko berriztatzea zituzten helburu.

Gaur egun, etxearen eta gorputzaren zainketak lotura berri bat aurkitu du: etxeko lanak eguneroko *aerobic* erregimen batean sartu eta telebistako prestatzaile fisiko baten erritmopean egin daitezke. Isolatuta egoteari utzi diolarik, etxearen mantentzaileak ezin konta ahala ikusleekin batera egin ditzake etxeko lanak. Lanok genero jakin bati gero eta gutxiago lotzen zaizkion arren eta «lana» eta «aisialdiaren» esparru neurritsuak gero eta trukagarriagoak badira ere, etxeko mantentze-lanen konbentzio gehienek aldagaitz jarraitzen dute. Etxeko lanetako jarduera nagusiak, hau da, zikinkerieri muga jartzea, eguneroko ordenari eustea, jatorrian eraginkortasunaren injineruek diseinatutako mugimendu-ekonomiaren oinarritzko irizpideak gobernatzeko duen industriaren ethosaren menpe daude oraindik ere. Har dezagun, esate baterako, gizon baten

alkandora lisatzeko prozeduraren adibidea, 60ko hamarkadako etxeko lanen eskuliburu baten arabera:

Laburpena: Jar ezazu alkandoraren atzealdeko lisatzeko taula baten erdian, kanekua teink dagoela. Lisaburdina ahalik eta gutxien jasota, mugi ezazu, muturra lepora begira duela, kanekutik atzealdeko hegalarren tolesturara eta taulan presioa egin ezazu, mugimendu patxadatsu, egoki bideratutako eta erritmikoez. Jantzia behar baino gehiago ez maneatzearen, bira ezazu alkandora honako ordenan: lehenik, mugi ezazu alkandora taularen gainazaletik erlojuaren orratzen aurkako norabidean, aurrealdeko ezker panela agerian jartzeko. Lisa ezazu. Egin ezazu etenaldi bat botoi zulo eta poltsiko bat lisatzen duzun bakoitzean, lurrina, ageriko nahiz barneko aldean, ehunean sar dadin. Segidan, bira ezazu alkandora erlojuaren orratzen norabidean aurrealdeko eskuin panela agerian jartzeko eta presioa egin ezazu, lisaburdinaren muturra botoi bakoitzaren inguruan biratuz. Lerra ezazu eskuin sorbaldako kanekua lisaketa taularen muturretik eta presioa egin. Egin ezazu gauza berbera ezker sorbaldako kanekuekin. Luza ezazu eskuin mahuka irekidura gora begira dagoela eta mahukaren zabalean diagonaliki presioa egin ezazu, galtzarbearen josturatik eskumuturraren goiko muturrera, zimur zorrotza lortu arte. Egin ezazu gauza berbera ezker mahukarekin. Kanekuari atzealdeko erdigunean dagoelarik, presioa egin ezazu lepoaren kanpo eta barrualdeko zimurrean, lisaburdina muturretara bideratuz. Emaiozu buelta alkandorari, aurrealdeko gora begira duela, eta lotu itzazu botoiak. Beharrezko ez diren janzkiaren eta besoen mugimenduak saihesteko Z metodoa erabiliz, emaiouzu buelta alkandorari. Tolestu ezazu aurrealdeko ezkerreko zatia erdialdera, kanekuari kanpoaldeko ertzetik, 6 zentimetro galtzarbearen josturatik hegalarren tolesturara, zimur zorrotza lortu arte presioa egin. Tolestu ezazu ezker mahuka sorbaldaren josturatik 45 gradu, mahukaren luzera atzealdeko zimurraren luzerarekin paralelo joan dadin, eta presioa egin ezazu. Egin ezazu gauza berbera atzealdeko eskuin aldearekin eta eskuin

mahukarekin. Tolestu ezazu alkandoraren hegala leporako bidearen $1/3$ an. Tolestu ezazu berriro kanonez aldera $1/3$, ertz guztiak lerrokaturik daudela eta laurogeita hamarreko angeluak osatzen dituztela ziurtatuz. Z metodoa erabiliz, emaiosu buelta alkandorari, aurrealdea gora begira duelarik, eta arinki presioa egin ezazu.

Lisaburdina elektrikoa heldu zelarik, lisatzeko zereginean gutxienekoak, estetikoak zein ekonomikoak, gailendu ziren pixkanaka. Alkandorari ahalik eta alde gutxienekin oso espazio txikia hartzen duen bi dimentsioko unitate errepikakor baten forma emateko ahalik eta ahalegin txikiena egiten da. Alkandora horrek oso zimur gutxi izango du hondatzen denean, batik bat jakaren papar-hegalen artean agerian geratzen den eremuan. Gizon baten alkandoraren eredu estandarizatuak alkandora forma lau, angeluzuzen batera itzuli ohi du, eta forma hori biltegiatze sistema ortogonalei ezin hobeto moldatzen zaie —manufaktura fabrikari, lantegian prentsaturako alkandora kartoizko kaxa angeluzuzenetan metatzen eta paketatzen da—. Kaxak bolumen kubiko modura kamioietara biltzen dituzte eta espazioa aurrezteko garraiatzen. Forma angeluzuzena ostera erakusketako kaxa ortogonalean sartzen da eta orduan, eresia izan ostean, etxean gordetzen da, jantzitegi bateko apaletan edo komoda bateko tiraderan eta, azkenik, etxetik kanporako bidaietan, maletetan. Alkandorari aldi bakoitzean hitzarmen sozial gorde bati moldatzen erakutsi zaio.

Hondatzean, eraginkortasunaren logika ortogonaleko hondakina gorputzaren gainazalean islatzen da. Alkandora garbi eta lisatu baten zimur paraleloak eta angelu zurrun eta karratuak fineziaren ikur gutziagarri bilakatu dira. Eraginkortasunaren azpiproduktua objektu gutziagarri bihurtu da.

Baina, lisatzeko zeregina eraginkortasunaren estetikatik erabat askatuko balitz? Agian lisatzearen emaitzek gorputz postindustrialia

hobeto ordezkaturiko lukete, funtzionala denaren irudia disfuntzionala denarenaz ordezkaturia

Bad Press (Lisaketa disidente baterako argibideak)

1. alkandora

Alkandoraren aurreko ezkerreko zatia lisaketa taularen gainean dagoela, lerra ezazu lisaburdinarekin muturra sorbaldako josturaren kanpoaldeko ertzetik bosgarren edo seigarren botoi-zulora, eraman beharreko jakaren barneko papar-hegalaren angeluaren arabera, diagonal zuzen bat eginez.

Errepika ezazu prozedura berbera eskuineko aldeaz eta egin ezazu presioa V-aren barruko eremuan bakarrik. Egin ezazu presioa lepoaren zimurrean, lisaburdina aurrealdeko lepoaren muturretara bideratuz. Egin ezazu presioa agerian dauden eskumuturren bi hazbeteetan bakarrik. Lotu itzazu aurrealdeko botoiak eta egin ezazu presioa arinki V formako ertzetako ezker eta eskuinean, zimur zorrotza moldatu arte.

XVIII. eta XIX. mendeko dandy ingelesek norberaren garbitasunaren kontzeptua ekarri zuten. Alkandora zuria azpiko arroparen eta kanpokoaren bitarteko estalki ikuzgarri eta sozialki onartu bezala aurkeztua izan zen. Higie-ne-ordena berri baten isla zen. Egutero alkandora garbi bat jantzearen berrikuntza ikaragarri hori Beau Brummeli egozten zaio.

Laburpena: Dandysmoaren gizarte fintasunezko arauen arabera, azala estaltzen zuen geruza zuria beti kanpoko janzkien ertzetatik haratago luzatzen zen eskumuturretan eta lepoan, obsesiboki zaindutako eskuen eta buruaren higie-ne-aren babesle gisa jokatuz. Hortaz, lepo eta eskumutur laxagarri haiei irakite, almidoiztatze, lisatze eta leuntze prozesu aski zorrotzak ezartzen zitzaizkien. Hasieran gizonezko janzkeraren soiltasun berria, «Gizonezkoaren Uko Egite Handia», islatu asmo

zuen hori artifizioarenganako lilura bihurtu zen, soiltasunaren irudia eraginkortasun bitxiaren irudi bilakatuz⁹.

2. alkandora

Lisatzeko prozedurari jarraiki, egin ezazu presioa alkandoran, baina berori tolestu gabe. Alkandora gora begira dagoela, lotu ezazu bigarren botoia lepoko aurreneko botoi-zulora. Jarrai ezazu botoiak hurrenez hurren lotuz, laugarren botoi-zuloa utzita. Gainerako botoiak behar bezala lerrokaturik egongo dira. Emaiozu buelta alkandorari eta egin ezazu presioa eskuin eta ezker aldeetan. Zuzen ezazu desbideraketa, sorbaldako lerroa mugituz eta tolestu ezazu alkandora zerrenda horizontaletik zazpi gradura.

Estatuko presondegi batean arropa garbitzeko lana eman zaien presoek lisaketaren jarduera erabiliz lengoaia aski landua asmatu dute. Arropan egindako zimur itxura batean zentzurik gabeko eta apaingarriei interesdunek bakarrik ulertzen duten balio figuratiboa eransten zaie. Zimurra, tatuajea bezala gainazal bigun eta malguetan egindako beste inskripzio mota bat, marjinauentzat erresistentzia ikur bat da. Tatuajea presoari geratzen zaion jabetza bakarrean, larruazalean alegia, egiten den bitartean, tolesa presondegiko uniformearen larruazal instituzionalean egiten da zuzenean —desitxuratze ezkutua—. Zimurrak eskuratze saialdiei tatuajeak baino hobeto aurre egiten die, bere lengoaia abstraktua ikasgabeari irakurgaitza gertatzen baitzaio, tatuajearen ohiko lengoaia piktorikoaren aldean.

3. alkandora

Lisa ezazu alkandora. Atzealdea gora begira dagoela, balia ezazu lisaketako prozedura arrunta, eskuineko mahuka eskuineko aldera tolestuz. Utz ezazu aske ezkerreko mahuka. Jarrai ezazu presioa eginez, alkandora eskuin mahukaren ardatzetik tolestuz, modu horretara aurreko poltsikoaren

zabalera zehatzera murrizteko. Tolestu ezazu eskuineko mahuka erditik eta presioa egin. Tolestu ezazu alkandora gurutze forman eta eskuineko mahuka lepo aldera erakarri eta, eskumuturretik bost hazbetera ezarritako zimur batez, sar ezazu poltsikoan.

Laburpena: X gaixoak janzki bat lisatzeari ekin zionean, erabat akiturik zerraldo erori arte ezin izan zuen gelditu. Gaixoak xeheki eta geldialdirik gabe alkandora baten zimurrik sumagaitzenak ere lisatzen zituen, adibidez, zati berberak behin eta berriro zuzenduz. Zimurrak erabat desagertzea ezinezkoa zen eta, beraz, lana ezin zen inoiz berak nahi bezala bukatu —lisatzeko lan berak janzkian zimur berriak eragiten baitzituen—¹⁰.

4. alkandora

Lisa ezazu alkandora, tolestu gabe. Lotu itzazu botoiz eskumuturrak eta aurrealdeko panelak. Lisatu goiko aldetik lepoa alkandoraren kontra eta luza ezazu laugarren eta bosgarren botoien artean. Tolestu itzazu eskumuturrak eta egin ezazu presioa. Luza itzazu eskumuturrak lepo aldera, zimurraren ardatza berrogeita bost gradutan mantenduz. Tolestu ezazu lepoa bere baitara eta beherantz. Egin ezazu presioa ezker eta lisa itzazu toles elkarzutak eskuineko aldeetan eta hirugarren botoia baino lehen eta seigarren botoiaz haratago.

Laburpena: Japoniarrek asmatutako alkandora guztiz kotoizkoa, lisaketa iraunkorrekoa eta urak hartzen ez duena, gizonezkoen janzkerak bizi izan duen trikimailurik hoberena bezala goraiapatu dute fabrikatzaileek, duela ia hogeita hamar urte lisaketa iraunkorreko alkandora asmatu zenetik. Alkandorak lisaketaren aurkako erronkarik gaitzena dira, gainerako janzki gehienekin alderatuta ehun finagoaz eginak baitaude. Kotoia janzten eta garbitzen denean, kotoiaren zelulosazko molekulak elkarlotzen dituzten hidrogenozko zubiak hautsi egin daitezke. Zubiak hausten badira, garbiketa egiterakoan molekula-kateak handitu egiten dira, eta zimurrak sortu. Baina kotoia erretxinez eta bestelako molekula

erreaktiboek tratatzen denean, kotoizko molekulen artean ehuna egonkortzen duten zubi berriak osatzen dira. Alkandoretan adituak diren zientifikoek badute, azkenik, zimurra sailkatzeko eskala bat, 1.0 arnasa baten baliokidea litzatekeelarik, eta 5.0, berriz, egoera ideala. Alkandora berri hauek 3.5 eta 4.0 bitartean dabilta. Japonian, non etxeko lanak oraindik ere generoen banaketa tradizionalaren mende baitaude, alkandorak, lisatzea gorroto duten emakumezkoen artean ez ezik, soldatapeko gizonezkoen artean ere aski famatuak dira. Izan ere, gizonok, negozioetako bidaiak egiten dituztenean, alkandora harraskan garbitu, lehortzeko zintzilik jarri eta hurrengo egunean jantzi dezakete¹¹.

Egiaz, lisatu iraunkorreko ehun miragarriak japoniar enpresarioen artean duen onarpenak eutsi egiten dio haien emazteek etxeko lanei eskaintzen dieten denbora luzearen irudiarri.

Family Feud lehiaketa-programa ezagunetik hartua: «Entzun ezazu galdera hau arretaz. 100 gizon ezkondu galdetu genien. “Aipa ezazu ezkontza bat gaizki doala iragartzen duen hasierako seinaleetako bat”. Gehien errepikatutako sei erantzunak honakoak izan ziren: etengabe eztabaidan aritzea, komunikaziorik eza, janaria prestatzeari uzten dio, sexurik eza, lisatzeari uzten dio, desleialtasuna».

Baliteke mirarizko ehunak iritsi direnez geroztik, lisatzeko jarduera maitasunezko adierazpen bilakatzea.

5. alkandora

Lisa ezazu eskuineko mahuka erdialderako zimur zorrotz batekin. Jar ezazu ezkerreko mahuka atzekoz aurrera. Lisatu eta luza ezazu mahuka botoiz lotutako lepoaren aurka. Sar ezazu eskua eskuineko mahukaren barruan irekigunetik eta hel ezazu alkandoraren beheko aldea aurrealdeko hegaletik. Lerra ezazu erabat alkandora eskuineko mahukaren aldera, lepoak eta galtzarbearen josturak

bat egiten duten arte. Lerroka itzazu lepoa eta eskumuturra mahukaren zimur bertikalarekin.

Bi espekulazio toles deleuziarraren gainean:

Laburpena: John Rajchman: Batek ezin esan dezake tolesa (*fold* edo *pli*) filosofiare arduragai tradizionala denik, etimologikoki toles-hitz askorekin ahaideturik dagoen arren, -plic eta -plex daramaten hitzak, hala nola azalpena, inplikazioa, multiplizitatea, ezbaia, konplexutasuna edo perplikazioa eta konplikazioa (*explication, implication, multiplicity, perplexity, complexity, perplication, complication*). Tolesak «afektibitate-esparrua» iradokitzen du. «Bizitzeko makinak» adierazpide modernistak gorputz mekaniko berriarentzako esparru garbi eta eraginkorra adierazi nahi zuen; baina nork asmatuko ote du gorputz anizkun berriarentzako afektibitate esparrua adierazteko modu bat?¹².

Greg Lynn: Sukaldaritzako teoriak hiru nahasketa motarako definizio bat garatu du. Lehenengoak osagai homogeenak maneiatzea dakar. Irabiatzeak, jotzeak eta harrotzeak eragin beharrez bolumena aldarazten dute, baina ez likidoaren izatea. Bigarrenak ezberdinak diren osagai bi edo gehiago nahasten ditu. Xehatzeak, kubotxotan txikitzeak, birrintzeak, ehotzeak, xerrak egiteak, apurtzeak eta txikitzeak osagaiak zatietara murrizten dituzte. Hirugarrenak, zeinak tolestea, krematan irabiatzea eta nahastea barne hartzen baititu, askotariko osagaiak leunki biltzen ditu, behin eta berriro astiro eraginez, osagai bakoitzaren ezaugarriak gordetzeko. Tolesteak arkitekturan ondoriorik utzi badu, loturarik gabeko osagaiak etengabeko nahasketa berri batean txertatu izana da. Nahasketa tolestu bat ez da harrotutako esnegaina bezain homogeenoa, eta ezta intxaur xehatuak bezain zatikatua ere, leuna eta heterogeenoa baino¹³.

6. alkandora

Jar ezazu alkandora atzekoz aurrera eta ezarri lisaketa taularen erdian, irekiguneetatik irmo tira egin. Bana ezazu atzealdeko zatia 20 atal berdinetan. Tolestu ezazu atal bakoitza eskuoinuaren moduan eta irmoki presioa egin. Tolestu erabat alkandoraren atzealdea eta lisaturik, bil ezazu lepo aldera, aurrealdeko ezker eta eskuineko aldeak lepoaren muturretik harago luza daitezen utziz. Tolestu ezazu lepoa hertsatutako alkandoraren aurka eta lotu itzazu lepoko botoiak. Itzul itzazu atzekoz aurrera dauden mahukak geratzen diren hegaleko aldeetan. Lotu itzazu eskumuturrak eta presioa egin ezazu.

Tolesa arkitektura postestrukturalistarentzat metafora baliagarria izan da, alderdi anbiguoak bermatzen baititu, hala nola gainazala eta egitura, forma eta antolaketa. Figuratiboa ez izatea da tolesaren ezaugarri nagusienetako bat. Tolesak, halaber, itzulgarritasuna du berarekin — zerbait tolestu baldin badaiteke, destolestu eta berriro tolestu daiteke —.

Zimurra metafora sinesgarriagoa da, eraldatzeari aurka egiten baitio. Zimurrak tolesak baino oroimen luzeagoa du eta balio figuratiboa du, inskripzio modura. Zimurra ezabatzen zailagoa da. Bere seinaleak etengabeko egiaztapen iturri dira — irauteko ilusioak bizi duen ordena berri bat inposatzen den arte —.

Oharrak eta erreferentziak

- 1 **Marshall, S.** «Bottom Line on Buttocks» in *USA Today*, 1992ko martxoak 19.
- 2 **Catherine Ingrahame** harreman hori modu aproposan aztertu du, «The Faults of Architecture: Troping the Proper», *Assemblage* 7, 1988.
- 3 **Mc Anulty, R.** «Body Troubles» in *Strategies in Architectural Thinking*, Cambridge, Massachusetts: MIT Press, 1992.
- 4 **Rabinbach, A.** *The Human Motor*, Berkeley: University of California Press, 1992.
- 5 **Thompson, H.** *Thresholds to Adult Living*, 1955.
- 6 **Bratton, E.** Oxygen Consumed in Household Tasks, Bulletin 873, Ithaca: New York State College of Home Economics, Cornell University, 1952.
- 7 **Phyllis Palmer** engandik hartua, *Domesticity and Dirt: Housewives and Domestic Servants in the United States, 1920-1945*, Philadelphia: Temple University Press, 1984.
- 8 Ibid.
- 9 **Zvi Effrat** engandik hartua, «The Unseemliness of the Fashionable» in *Architecture: In Fashion*, New York : Princeton Architectural Press, 1994.
- 10 Nahaste obsesibo-konpultsiboagatik tratamendua jasotzen ari zen irakasle baten kasua, *Journal of Behavioral Research* aldizkarian aipatua.
- 11 «Low Iron 100% Cotton Shirts Expected in the US by Father's Day», *New York Times*, 1993ko abenduak 30.
- 12 **John Rajchman** engandik hartua, «Out of the Fold», *Architectural Design*, 102. zka., *Folding Architecture* 1993.
- 13 **Lynn, G.** «Architectural Curvilinearity» en *Architectural Design*, 102 zka., *Folding Architecture*, 1993.